

ALBISTE GAZI GOZOAK

Martxoak 12an mahai parekide bat izan genuen eta gai batzuei buruz akordio batzuk lortu genituen, eta beste batzuetan ezadostasun nabarmena dago:

- **RPT berria** landu genuen non 867 plaza agertzen ziren
- RPT berri honetan, lehengoan baino plaza gehiago egonda, **2008ko LEPa gainditu eta plaza lortu duten 500 pertsonak** aukera izango dute maiatzaren 30an, 650 plaza inguru lekua aukeratzeko. Honek esan nahi du, bostehungarrenak ere aukeratzeko 151 leku desberdinak izango dituela.
- **500 plazak lortzen ez dutenen egoera.** STEE-EILASeri asko ardurutzen zaio jende honen egoera, eta honen aurrean eskatu dugu, finko ez diren guztiak esleipen handi baten bidez birkokatzea ordezkapen zerrenda jarraituz. Honetarako, Partzuergoak bakantedun kontratu guztiak mantendu behar zituen, oinarri juridiko handirik ez baitago kontratuak apurtzeko. Ikusita plaza kopurua etengabe handitzen dela, pentsatzen jarraitzen dugu, borondatea egonda posible litzatekeela lanpostuen birbanaketa egitea. STEE-EILAS bakarrik geratu da sistema honen defentsan, eta ez dugu lortu.

Gauzak horrela, bat etorri gara beste sindikatuekin eta hartu den erabakia:

LEP prozesua amaitu ondoren, **Haurreskola bakoitzeko** bakantedun langileak ordezkapen zerrendaren arabera ordenatuko dira. Hau da, Partzuergoaren antzintasunaren arabera. LEP prozesua dela eta, kontratuak apurtu behar badira langile soberan daudelako, zerrendako azkenari kontratua apurtuko diote.

Hau bakarrik Haurreskola batzuetan gertatuko da, eta gauzatu arte ez dago jakiterik. Hau da, maiatzaren 30an LEPeko plazak banatzen direnean gauzak hobeto argituko dira.

ZIBERSTEILAS HAURRESKOLAK 19

STEE-EILAS-en informazio elektronikoa

martxoak 16

- **LEP berria.** Partzuergoa prest dago aurreko LEPEko gaitegia, azterketa motak,...eta abar mantentzeko, era berean, prest egongo zen ere aldaketa batzuk onartzeko; (azterketen iraupena, goizeko eta arratsaldeko azterketen trukaketa,..).
- **Leku aldatze lehiaketa.** STEE-EILASetik argi geneukan leku aldatze lehiaketa arautzea garrantzitsua zela, jendeak, lortzen duen plazarekin bere burua behin betirako lotuta ez ikusteko. Beraz, hurrengo LEPEko plazak banatu baino lehen, leku aldatze lehiaketa egingo da.
- **Birbaremazioa.** Partzuergoak aurten birbaremazio itxi bat egitea planteatu du, zenbait historiko eta 2007an barematua ez ziren langileentzat, 2008ko apirilaren 14rarteko merituak soilik barematuz. STEE-EILASek, honen aurrean, bere ezadostasun osoa adierazten du eta urtero egiten den birbaremazio zabala eskatzen du. Guztia, Partzuergoak dioen bezala egiten bada, azkeneko urtean ordezkapenak egiten ibili diren langile guztiak, ibiltariak barne, 0 punturekin egongo dira abuztuko esleipenean. Onartezina!!
- **Ordainsariak.** STEE-EILASek eskatzen jarraitzen du, %4ko igoera 2009an eta 0,5ko igoera 2008an, hezkuntzarekiko aldeak murriztu nahian. Partzuergoak ostera proposamenik ez du azaldu, eta hurrengo parekidean berri gehiago izango ditugula.
- **Behin behineko LEPEko emaitzak.** Dakizuenez, emaitzak irten dira eta ematen du egun solteak ez dituztela metatu. STEE-EILASetik behin eta berrero, irizpidea zein zen argitzea eskatu diegu Partzuergoari eta epaimahaiari. Erantzunik ez dugu jaso. Beraz, egin beharreko erreklamazioak egitea gomendatzen dizuegu.
- **Historikoak.** LOGSE Legean oinarrituta, langile hauen talde txiki batentzat akordioaren bat lortzeko bideak ireki direla esan genezake.

Zalantzaren bat izanez gero, badakizue non gauden.